

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 25 min** dituzu azterketa egiteko.

| | PROBEN EZAUGARRIAK | AURREIKUSITAKO DENBORA | PUNTUAZIOA (GEHIENEZ) | PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ) |
|-----------------|---|---------------------------|--------------------------|---------------------------|
| IRAKURMEN PROBA | <ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai dira eta guztira 25 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du eta bigarrenean 0,6. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 850 hitz gehienez. | 35 min | 20 | 10 |
| IDAZMEN PROBA | <ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. | 50 min | 30 | 15 |

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ITSASOARI HARTUA, ITSASOAK ERAMATEKO ZAIN

Climate Central erakundeak argitaratutako CoastalDEM® Coastal Risk Screening Tool aplikazioak hautsak harrotu ditu azken hilabeteetan, klimaren aldaketak epe laburrean munduko hainbat kostaldetan eragingo lituzkeen ondorio larriak erakutsi ondoren. Euskal Herrian ere kezka hartu da argitalpena, gizartearen parte handi bat itsasbazerrean bizi baita. Hainbat estimazio egin dituzte, XXI. mendean itsasoaren igoerak eragindako uholdeak pairatzeko arriskua duten lur-eremuak identifikatzeko. Horien arabera, karbono-isuriak maila baxuetara murriztuta ere, 2100. urterako 340 milioi pertsonaren bizitokia geldi liteke urpean; eta emisioak altu mantenduz gero, 480 milioirena. Euskal Herrian, ondorioak kostaren luze-zabal osoan sentituko lirateke, nahiz eta intentsitatea desberdina izan eskualdearen arabera. Ingururik kaltetuenak ibai nagusien bokaleak lirateke.

Haatik, klima-aldaketaren ondorioak auzi konplexua dira, eta komenigarria izan liteke ikuspegia apur bat zabaltzea, egoera honetara ekarri gaituzten arrazoiak era egokian ebaluatu ahal izateko. Izan ere, orain arriskuan daudenak ez dira zeinahi inguru, ibai nagusien estuarioak baizik. Eta, berriki arte, estuariook paduraz eta hezegunez estalita egon dira, itsasaldien erauntsiari aurre egiteko babes ekologiko eraginkorra eskainiz inguruan egonkortutako komunitateei; babes hori desagertuta, euskal kostako eremu urbano eta industrial garrantzitsuak itsas mailaren igoeraren menpe geldituko dira erabat. Prozesua ulertzeko, lau mende egin behar dugu atzera, euskal estuarioetako padura-ekosistemen artifizializazioaren abiapuntura, hain zuzen ere.

Erdi Aroaz geroztik, garaiko agiriek erakusten dutenez, estuarioetako padura-inguruneak herri-lur gisa ustiatzen ziren, arrantza, ehiza edo espartzua egiteko. Aldaketa XVII. mendean hasieran etorri zen. Garai hartan, Europako hainbat herrialdetan padurak lehertzeko eta laborantza-lur

berriak irabazteko joera nagusitu zen. Eredu berari jarraiki, euskal kostako zenbait udal ere padurak ixteko eta lehertzeko baimenak ematen hasi ziren, bertan soroak eta baratzeak eraikitzeke xedez. Orokorrean inguru ospelak eta hezeak izanik, espazio haiek bereziki egokiak ziren Ameriketarik iritsitako labore berriak lantzeko; horri esker, lur berri ugari landu eta ekoizpena nabarmen emendatu zen toki askotan. Gero, XIX. eta XX. mendean, prozesua erabat bestelakoa izan da: paduren urbanizazioa eta industrializazioa, alegia.

Egia da azken hamarkadetan urratsak eman direla prozesua gelditu eta padura naturala berreskuratzeko bidean; horregatik, batzuk Babes Bereziko Eremu gisa izendatuta daude. Hala ere, izendapenak ez du, degradazioa mugatu arren, estuarioek klima-aldaketaren aurrean daukaten ahulezia konpontzen. Alde batetik, natura-parkeek estuarioaren parte txiki bat bakarrik hartzen dute; beraz, ez dago batere argi zer eragin izan lezakeen padura «natural» hauen berreskurapen mugatuak, inguruko lurrek guztiz urbanizatuta segitzen duten heinean. Bestalde, aipatutako industrializazio- eta urbanizazio-prozesuek guztiz eraldatu dituzte jatorrizko paduren topografia eta hidrografia, eta horrenbestez higadura- eta sedimentazio-dinamikak.

Auzia ezin da espazio naturalen eta artifizialen arteko dikotomia zurrun baten baitan ebatzi, beti bezala. Klima-aldaketaren eta ekosistemen degradazioaren ondorioak bezalako arazoei aurre egiteko, funtsezkoa da paisaia oro eraikuntza historiko bat dela ulertzea –ekosistemaren eta giza jardueren arteko epe luzeko elkarrekintzaren emaitza– eta haren kodifikazioan eragiten duten faktore guztiak modu integratuan lantzea, konponbide jasangarriak bilatzeko.

NARBARTE, J. Argia, 2020ko urtarrila. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer erakusten du argitalpenak itsasoaren igoeraz?

- a) Ezin dela jakin zein diren uholde-arriskuak mehatxatuta dauden inguruak.
- b) Euskal Herriko kostara osoan neurri berean pairatuko dituztela ondorioak.
- c) Karbono-isurien murrizketa edozein delarik, askok galduko dutela bizitokia.

2. Zer nabarmentzen du testuak itsas mailaren igoeraz?

- a) Kostaldeko eremu urbanoak eta industrialak arriskutik kanpo daudela.
- b) Padurak eta hezeguneak oraindik ere badirela babes ekologikoak.
- c) Arriskuan dauden inguruak ez direla edozein lur-eremu.

3. Zer gertatu zen XVII. mendean padurekin?

- a) Soro gehiago izatearren, lehortu egin zituzten zenbait.
- b) Labore berriak lantzeko premiak desagerrarazi egin zituen hainbat.
- c) Eremu berrien urbanizazioaren beharrak itxiarazi egin zituen batzuk.

4. Zer ez da lortu azken hamarkadetan?

- a) Padura naturalak berreskuratzen hasia.
- b) Klima-aldaketaren aurrean estuarioak babestea.
- c) Padurek lau mendez izan duten degradazioa mugatzea.

5. Zer da ezinbestekoa arazoei aurre egiteko?

- a) Espazio naturalen eta artifizialen arteko dikotomia kontuan hartzea.
- b) Ekosistemak eta giza jarduerak elkarri eragiten diotela onartzea.
- c) Arazoa eragiten duten faktore guztiak banan-banan aztertzea.

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

PILULEN BIDEZ ERE, PREBENTZIOA

Eskuragai ipini dituzte Osakidetzak eta Osasunbideak hiesaren sorburua den Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIB birusa) prebenitzeko sendagaiak. Aspalditik dira ezagunak botika horiek, eta **6** erabili izan dira aurretik ere; finean, GIBaren aurka egiteko erabiltzen diren botikak dira, pilula gisakoak. Espainiako Gobernuaren baimenik ez zegoen oraindik, **7**, substantzia horiek prebentziorako baliabide gisara ere ematen hasteko, eta Osasun Ministerioak «argibide» aldaketa **8** arte zain egon behar izan dute osasun-zerbitzuek erabilera berria ezartzen hasteko. Ministerioak urriaren amaieran egin zuen urrats hori, eta botikak orain jarri dituzte eskuragai.

Orain arte, preserbatiboaren erabilera sustatzearen inguruan egon dira **9** hiesaren inguruko kanpainak ia beti, baina azken urteotan prebentzioa beste eremu batzuetara zabaldu du botiken erabilerak. Ez dudarik eragin gabe; izan ere, pilulen bidezko prebentzio-eredu horrek preserbatiborik gabeko sexu-harremanak **10** ditu eta, ondorioz, ez ditu sexu-erlazioen bidez transmititzen diren gainerako **11** prebenitzen.

Espainiako Osasun Ministerioak zehaztu du nori eman ahal izango zaizkion botikak prebentziorako, eta irizpide horiek jarraitu beharko dituzte orain osasun-zerbitzu guztiak. «Zehaztutako **12** barruan sartzen direnei bakarrik emango zaizkie; edonork ezin ditu hartu», azaldu du Antonio Arraizak, Osakidetzako hiesaren planaren koordinatzaileak. Horretarako, oinarritzko bi arau bete hehar dira: pilulak hartzen dituzten guztiak izan behar dute GIBik gabeak eta 18 urtetik gorakoak. **13**, beste bost irizpide gehiago ezarri dituzte, botika hartzera doazenek iragan urtebetean izan dituzten esperientziak **14** hartuta, eta gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonetan pentsatuta betiere: hamar sexu-bikote baino gehiago izatea, babesik gabeko sexua izatea, babesik gabeko sexu-harremanetan drogak erabiltzea, sexu-harremanen ondorengo profilaxia erabili izana eta, gutxienez, sexu-transmisio bidezko infekzio bat eduki izana. «Irizpideotako bat betetzen duten gizonak hartu ahal izango dute botika prebentziorako», azaldu du Arraizak. Andrazkoen kasuan prostituzioan ari direnek soilik eskatu ahal izango dute, «normalean preserbatiboa erabiltzen ez badute». **15**, gizonentzat pentsatutakoa da ia guztiz prebentzio-eredu hori. Arraizaren esanetan, benetako **16** du horrek. «Iaz, esaterako, gurean izan ziren 154 infekzio berrien % 80 gizonenak izan ziren; gehienak, gizonekin sexu-erlazioak dituzten gizonenak».

17, «arrisku» praktikak dituzten horiei begirako neurrietan saiatzea ezinbestekoa dela gogoratu du Arraizak. «**18**, infekzioa hartzen ez badute, zabaldu ere ez dute egingo. Katea **19** da asmoa, infekzio kopuru berria apaltzea». Bestalde, prebentzio-eredu horrek ekar ditzakeen arazoan artean dago sexu-transmisio bidezko gainerako gaitzek gora egitea **20**, preserbatiboa ez erabiltzeagatik. Badira hori erakusten duten ikerketak. «Baina, oro har, balantzan jarrita, **21** handiagoa da», argudiatu du Osakidetzako ordezkariak.

Argi utzi du, hala ere, aukera berri hori ezin dela izan gainerako prebentzio-bideen **22**: «Ez doa bakarrik. Prebentziorako beste lan **23** osagarria izan behar du beti». Aurrez abian jarritako prebentzio-estrategia guztiak martxan jarraitzen dutela esan du, horiek **24** segituko dutela. Gizartearen osotasunari begira, oro har, beti nagusitu den mezuari **25** behar zaiola nabarmendu du: «Armarik eraginkorra preserbatiboa da».

IRAOLA, A. *Berria*, 2019ko azaroa. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) erruz
 b) beldurrez
 c) ganoraz
 d) irmotasunez

7. a) alegia
 b) hortaz
 c) ordea
 d) bederen

8. a) salbuetsi
 b) egotzi
 c) onetsi
 d) erdietsi

9. a) aldatuta
 b) ardaztuta
 c) gaindituta
 d) antzututa

10. a) eragozten
 b) baldintzatzten
 c) bateratzen
 d) ahalbidetzen

11. a) zailtasunak
 b) ontasunak
 c) berekoitasunak
 d) eritasunak

12. a) jarraibideen
 b) sarbideen
 c) adimenen
 d) eskumenen

13. a) Bestela
 b) Halaber
 c) Alabaina
 d) Haatik

14. a) oinarri
 b) jomuga
 c) aurkari
 d) mugarri

15. a) Bidenabar
 b) Esaterako
 c) Ostera
 d) Beraz

16. a) bilakaera
 b) zalantza
 c) jarraipena
 d) funtsa

17. a) Gauzak horrela
 b) Hurrenez hurren
 c) Dena dela
 d) Oraindik ere

18. a) Aldi bereran
 b) Batez beste
 c) Izan ere
 d) Hala ere

19. a) herdoiltzea
 b) jaurtitzea
 c) haustea
 d) hedatzea

20. a) indarrean
 b) sarri
 c) eskura
 d) gaina

21. a) lagina
 b) onura
 c) oniritzia
 d) kopurua

22. a) izapide
 b) eragile
 c) ordezko
 d) erantzule

23. a) gorenekin
 b) ildoekin
 c) mardulekin
 d) isolatuekin

24. a) atzematen
 b) artatzen
 c) gailentzen
 d) hauspotzen

25. a) erantsi
 b) eutsi
 c) ihardetsi
 d) ebatsi

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.

Ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: AEBko Minneapolis hirian poliziak George Floyd afroamerikarra hil zuen maiatzaren 25ean. Gertaerak haserre eta protesta-mugimendu handia eragin zuen mundu osoan eta berriro ere jarri du mahai gainean arrazakeriaren inguruko eztabaida.

Gaiaz kezkatuta, herriko aldizkarian idaztea pentsatu duzu.

GAIA: **NOLA EGIN DIEZAIKEGU AURRE ARRAZAKERIARI?**

Munduan arrazakeria kasu ugari daude eta pertsona beltzek ez ezik, beste arraza batzuetakoek ere pairatzen dute.



Beldurra, informaziorik eza, aurreiritziak edo egoera sozio-ekonomikoak izan ohi dira arrazakeriaren sorburu.

Nazio Batuen Erakundeak adierazi duen bezala, oso kezagarria da arrazakeriaren aldeko taldeen igoera mundu osoan.



Gaur egun arrazakeriaren aldeko mezuak erraz zabaltzen ari dira, gero eta gehiago baitira Interneten arrazakeriaren sostengua diren web-orriak.

- Zer deritzezu gertatutako azken arrazakeria-kasuei?
- Zer dela eta gertatzen dira? Zer jarrera hartu ohi dugu halakoetan?
- Nola saihestu litezke arrazakeriaren aldeko mezuak Interneten?
- Zein da arrazakeriari aurre egiteko modua? Zer egin lezake Administrazioak?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1 ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Itsasoari hartua, itsasoak eramateko zain»

| | | | | | |
|----|---|----|---|----|---|
| 1. | C | 2. | C | 3. | A |
| 4. | B | 5. | B | | |

■ **2. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Pilulen bidez ere, prebentzioa»

| | | | | | |
|-----|---|-----|---|-----|---|
| 6. | A | 7. | C | 8. | C |
| 9. | B | 10. | D | 11. | D |
| 12. | A | 13. | B | 14. | A |
| 15. | D | 16. | D | 17. | A |
| 18. | C | 19. | C | 20. | B |
| 21. | B | 22. | C | 23. | B |
| 24. | D | 25. | B | | |